16.3.7 En el supuesto de que el contrato se adjudicase a una unión temporal de empresarios, ésta acreditará su constitución en escritura pública, así como el NIF asignado a dicha unión, con anterioridad a la firma del mismo.

De no cumplirse el requerimiento en el plazo señalado, se entenderá que la empresa licitadora ha retirado su oferta, declarando desierta la licitación.

La adjudicación del contrato corresponde al órgano de contratación y se acordará mediante resolución motivada que será notificada a la empresa adjudicataria y publicada en el perfil de contratante, tal y como recoge el art.151.1 de la LCSP.

El contrato quedará perfeccionado con la formalización de conformidad con lo dispuesto en el art. 153 LSP.

III.- KONTRATUA BURUTZEA

17. KONTRATUA BURUTZEA

Kontratazio organoak, kontratua esleitzeko ebazpenean, SPKLren 62. artikuluak xedatutakoaren arabera, kontratuaren arduraduna izendatuko du. Pertsona horren eginkizuna izango da kontratua betetzen dela ikuskatzea eta beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak ematea, hitzartutako prestazioa behar moduan eta egoki gauzatuko dela ziurtatzearren.

Kontratuaren arduraduna izango da enpresa esleipendunaren eta kontratazio organoaren arteko solaskidea.

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura gauzatuko da SPKLren 197. artikuluan jasotakoaren arabera.

III.- EJECUCIÓN DEL CONTRATO

17. EJECUCIÓN DEL CONTRATO

El órgano de contratación, en virtud del artículo 62 de la LCSP, designará en la resolución de adjudicación del contrato a la persona responsable del contrato, a la que corresponderá supervisar su ejecución y adoptar las decisiones y dictar las instrucciones necesarias con el fín de asegurar la correcta realización de la prestación pactada.

La persona responsable del contrato es la persona interlocutora entre la empresa adjudicataria y el órgano de contratación.

La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura de la empresa contratista, con arreglo a lo dispuesto en el art. 197 de la LCSP.

Kontratua betetzeko agiri honetan jasotako klausulak eta, kasuan kasu, espedienteari erantsitako zehaztapen teknikoak jarraituko dira, eta betiere, Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolpean. Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo bere mendeko pertsonei lepora dakizkiekeen ekintzengatik edo ez-egiteengatik kontratuaren martxa ona arriskuan jartzen denean, Administrazioak kontratuaren martxa ona lortzeko edo berreskuratzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzea agindu dezake.

El contrato se ejecutará con sujeción a las cláusulas contenidas en el presente pliego y, en su caso, a las especificaciones técnicas unidas al expediente, bajo la dirección, inspección y control de la Administración, quien ejercerá estas facultades tanto por escrito como verbalmente.

Cuando por actos u omisiones imputables al o a la contratista o a personas de él o ella dependientes se comprometa la buena marcha del contrato, la Administración podrá exigir la adopción de las medidas que estime necesarias para conseguir o restablecer el buen orden en la ejecución del mismo.

17.1. ZERBITZUARI ATXIKITU BEHARREKO BALIABIDEAK.

Enpresa esleipendunak zerbitzua gauzatzeko baliabide pertsonal zein tekniko nahikoak izan beharko ditu.

Giza baliabideei dagokionez lan taldeak honako baldintzak bete beharko ditu:

- Saioak bideratuko dituzten pertsona(k) burutu behar duten lanerako gaitua(k) eta prestatua(k) izatea: hezitzaile formazioa eta herriko aisialdiaren ezagutza izatea.
- Gutxienez ondoren zehazten diren tituluetatik bat izan beharko du(te):
  - Aisialdiko hezitzaile titulua.
  - irakasletza ikasketak.
  - Goi mailako zikloren bat jarduera fisikoa eta kirolean.

17.1 ADSCRIPCIÓN DE MEDIOS AL SERVICIO

La empresa adjudicataria deberá disponer de los medios personales y técnicos suficientes para la realización del servicio.

En cuanto a los recursos humanos, el equipo de trabajo deberá cumplir los siguientes requisitos:

- Las persona que guiarán las sesiones estarán habilitadas y preparadas para el trabajo que deben desarrollar: formación como educador/a y conocimiento del tiempo libre del municipio.
- Deberá poseer al menos uno de los siguientes títulos:
  - Título de educador de tiempo libre.
  - O estudios de magisterio.
  - O algún ciclo superior de actividad física y deporte.

18.EXEKUZIO BALDINTZAK BEREZIAK.

Klausula honetan jasotako betebeharrak **exekuzioko baldintza berezitzat** jotzen dira; horiek ez betetzeak, beraz, agiri honetan jasotako zigorrak ezartzea ekarriko du, antolamendu juridikoak aurreikusitako ondorioez gain.

18. CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN.

Las obligaciones recogidas en esta cláusula se consideran **condiciones especiales de ejecución** del contrato, cuyo incumplimiento dará lugar a la imposición de las penalidades previstas en este pliego además de las consecuencias previstas en el ordenamiento jurídico.

18.1 ENPRESA ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK.

Kontratisten gutxieneko lan-baldintzak.

- Lan legeria, gizarte segurantza eta Hitzarmen kolektiboen alorrean indarrean dauden legezko xedapenak bete beharko dira, baita 31/95 Legen (laneko Arriskuen prebentziorako Legea) eta lege hori garatzen duten errege-dekretuetan jasotako guztia. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

- Lizitatzaileek adierazi beharko dute, esleipena jaso ezkero, kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa eta, halaber, eskatzen den informazio guztia eman beharko dela, behin kontratua esleitu eta gero, langileei benetan aplikatuko zaizkien lan-baldintzei buruz.

- Esleipendunak hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko duela, kontratua gauzatzen den denbora guztian, betiere langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, soldata hura baino txikiagoa izan.

- Hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipen-ebazpenean jasoko da eta, halaber, kontratatzailearen profilean argitaratuko da, enpresa esleipendunak adierazita badauka kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikagarri zaiela halako hitzarmen kolektiboa.

- Lehiatzen direnek beren buruaz eta beren borondatez onesten dute gardentasun instituzionala ematea lizitazio-, esleitze- eta gauzatze-prozesuen ondorioz sortzen diren datu guztiei, prozesu horiek bukatu arte.

18.1. OBLIGACIONES LABORALES DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA

Condiciones laborales mínimas.

- La empresa contratada y en su caso, la subcontratada están obligadas a cumplir las disposiciones legales vigentes en materia laboral, de Seguridad Social, convenios colectivos, y todo lo comprendido en la Ley 31/95, de prevención de riesgos laborales, y en los reales decretos que la desarrollan, quedando la Administración exonerada de responsabilidad por este incumplimiento.

- Los licitadores o licitadoras están obligados a indicar el convenio colectivo que será de aplicación a los trabajadores y trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato, en el caso de resultar adjudicatarios, así como la obligación de facilitar cuanta información se requiera sobre las condiciones de trabajo que, una vez adjudicado el contrato, se apliquen efectivamente a esos trabajadores y trabajadoras.

- El adjudicatario o adjudicataria deberá, a lo largo de toda la ejecución del contrato, abonar el salario recogido en el convenio colectivo de aplicación según la categoría profesional que le corresponda a la persona trabajadora, sin que en ningún caso el salario a abonar pueda ser inferior a aquel.

- La información sobre el convenio colectivo que la empresa adjudicataria declare aplicable a los trabajadores y trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato se incluirá en la resolución de adjudicación y se publicará en el perfil de contratante.

- Los licitadores están obligados a la aceptación voluntaria de dar transparencia institucional a todos los datos derivados de los procesos de licitación, adjudicación y ejecución hasta su finalización.

18.2 HIZKUNTZA BETEBEHARRAK

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste, Hernaniko Udalak onartuta dituen hizkuntza irizpideak Udal barruan eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko.

Azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuak, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, 4. ataleko 36. artikuluan jasotzen du Euskadiko toki-entitateek egiten dituzten kontratuetan kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dituztela, batetik herritarrei bermatzeko toki-erakundeei exijitzen zaizkien hizkuntza baldintza berberetan jaso ahal izatea kontratu bidezko jarduerak eta zerbitzuak eta bestetik, euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza ofizialtasunaren erregularizazioa betetzeko.

Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriak kontratua ezinbestean euskaraz gauzatzea eskatzen du, enpresa esleipendunaren langileek zuzeneko harremana izango dutelako zerbitzu jasole euskaldunekin. Administrazioari dagokio zerbitzu jasoleen hizkuntza eskubideak bermatzea. Horrenbestez, administrazioak bermatu behar du enpresa esleipendunak zerbitzua euskaraz ere eskaintzeko gaitasuna baduela.

Hizkuntza baldintza hauek kontratuaren funtsezko betebehar izaera dute, eta horiek urratzeak zigor sistema aplikatzea ekar lezake edo kontratua bertan behera uztea Sektore Publikoko Kontratuaren Legeari jarraituz.

18.2 REQUISITOS LINGÜÍSTICOS

Este contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco en su artículo 6° y regulado por la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, y por la normativa que la desarrolla, entre otros los Criterios lingüísticos para la normalización del uso del euskera del Ayuntamiento y en el municipio de Hernani.

Artículo 36 de la Sección 4 del Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi estipula que los contratos administrativos suscritos por las entidades locales de Euskadi incluirán las cláusulas que sean precisas para garantizar a los ciudadanos y ciudadanas el derecho a recibir las actividades o los servicios en los que medie un contrato, en condiciones lingüísticas equivalentes a las que sean exigibles a aquellas, así como el cumplimiento de la regulación de la doble oficialidad lingüística del euskera y del castellano.

Las características especificas de la prestación objeto del contrato exigen que el contrato se materialice en euskera, ya que las personas trabajadoras de la empresa adjudicataria van a tener relación directa con personas usuarias del servicio vascoparlantes. Corresponde a la Administración garantizar los derechos lingüísticos de las personas receptoras del servicio. Por tanto, la Administración debe garantizar que la empresa adjudicataria tiene capacidad para ofrecer el servicio también en euskera.

Estos requisitos lingüísticos constituyen una obligación esencial del contrato y el incumplimiento de ellos es razón suficiente para aplicar un sistema penal o la resolución del mismo de conformidad con la Ley de Contratos del Sector Público.

a) Euskara gaitasunari buruz

Enpresa esleipendunak ikasleekin zuzeneko harremanean lana burutzeko izendatzen dituen irakasleek gai izan beharko dute beren eginkizunak bi hizkuntza ofizialetan egiteko, eta esleipena egingo bada, nahitaez egiaztatu beharko dute Europako Erreferentzia Markoaren **C1 euskara gaitasun maila e**do baliokidea.

Esleipendun izateko proposatutako enpresak kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du zerbitzua emango duten langileek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna, horretarako egingo zaion eskakizunean emandako epean.

Egiaztapena nola:

-Euskara gaitasunaren titulu bitartez

-Euskaltegiratuta dauden pertsonen kasuan, euskaltegiak egindako agiri bitartez.

-Euskal Autonomia Erkidegoko beste erakunde publiko batek egindako mailaketa proban ateratako emaitza egiaztatzen duen agiri bitartez.

-Euskara maila egiaztatzetik salbuetsita dagoela jasotzen duen agiriaren bitartez: Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren 2., 3. eta 4. artikuluetan eta otsailaren 26ko 28/2019 Dekretuaren eranskinean jasota dagoenaren baitan.

-Hernaniko Udalean 2006az geroztik egindako mailaketa probaren batean ateratako emaitza hartuko da kontuan.

Kontratuaren esleipendun izateko proposatzen den enpresako langileek kontratazio honetarako eskatutako euskara gaitasuna egiaztatua ez badute, mailaketa-probak egingo dizkie Udalak. Azterketak Udalak zehaztutako egunean, orduan eta lekuan egingo dira.

a) Capacitación lingüística

El profesorado que la empresa adjudicataria designe para llevar a cabo su trabajo de relación directa con el alumnado deberá estar capacitado para trabajar en las dos lenguas oficiales, y para poder llevar a cabo la adjudicación deberá justificar obligatoriamente el nivel **C1 o su equivalente.**

Previa a la adjudicación, la empresa propuesta para ello deberá verificar que las personas encargadas de prestar el servicio poseen la competencia lingüística precisa, en el plazo que se le solicite.

Modo de acreditación:

-Mediante título de competencia en euskera

-En el caso de las personas que están en euskaltegi, mediante documento expedido por el euskaltegi.

-Documento acreditativo del resultado de la prueba para evaluar el nivel de euskera realizado por otro ente público de la Comunidad Autónoma del País Vasco

-Mediante certificado de exención de acreditación del nivel de euskera: de conformidad con lo establecido en los artículos 2, 3 y 4 del Decreto 47/2012, de 3 de abril y en el anexo del Decreto 28/2019, de 26 de febrero.

- Se tendrá en cuenta el resultado obtenido en alguna de las pruebas para evaluar el nivel de euskera realizadas en el Ayuntamiento de Hernani desde 2006.

El Ayuntamiento realizará pruebas para medir el nivel de euskera al personal de la empresa propuesta como adjudicataria, en el caso de que no tenga acreditado el nivel de euskera exigido para esta contratación. Las pruebas se realizarán el día, hora y lugar concretados por el Ayuntamiento.

Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatuko ditu dagozkion azterketak langile horien euskara maila neurtzeko. Horretarako Euskara Zerbitzua harremanetan jarriko da enpresarekin. Enpresak bere gain hartuko du mailaketa proba horiek egiteak sor dezakeen kostua.

El Servicio de Euskera del Ayuntamiento será el encargado de organizar las pruebas oportunas para evaluar el nivel de euskera de dichas personas. Para ello el Servicio de Euskera se pondrá en contacto con la empresa. La empresa se hará cargo de los gastos que puedan ocasionar dichas pruebas.

Euskara Zerbitzuak aldeko txostena egin arte ezingo du Kontratazio Mahaiak kontratazioan aurrera egin.

La contratación no se podrá formalizar hasta que el Servicio de Euskera emita informe favorable.

Kontratuaren esleipendun izateko proposatzen den enpresako langile guztiek zerbitzu honetarako eskatutako euskara gaitasuna egiaztatzen ez badute, ezin izango da esleipenduna izan.

No podrá ser adjudicataria la empresa propuesta para ello si todo su personal no acredita el nivel de euskera exigido para este servicio.

Langileren batek eskatutako euskara gaitasuna egiaztatzen ez badu, hau da, C-1 gaitasun maila, enpresak euskara gaitasun hori egiaztatua duen beste langile bat proposatuko du 3 lan eguneko epean gehienez ere, zerbitzuaren enpresa esleipenduna izan ahal izateko. Epe horretan euskara gaitasun maila egiaztatua duen beste langilerik aurkezten ez badu, esleipendun izateko proposatutako enpresa ezin izango da esleipenduna izan. Horrelakorik gertatuz gero, Udalak lehiaketaren zerrendan 2. geratu den lizitatzaileren euskara gaitasuna baloratuko du. Eta horrela hurrenez hurren.

En el caso de que algún trabajador o trabajadora no acredite el nivel euskera requerido, es decir, el nivel de competencia C-1, la empresa propondrá a otra persona que sí tenga acreditado dicho nivel euskera en un plazo máximo de 3 días laborales para poder ser adjudicataria del servicio. En el supuesto de que en dicho plazo no presente personal con el nivel requerido de euskera, la empresa propuesta como adjudicataria no podrá ser adjudicataria. En ese caso el Ayuntamiento se dirigirá al o a la siguiente licitante, por el orden que hayan quedado clasificadas las ofertas, a fin de que valore la competencia lingüística. Y así, sucesivamente.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago enpresa esleipendunak langileren bat aldatuz gero edo zerbitzua emango duen pertsona berririk kontratatzeko asmorik izanez gero, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute. Langile aldaketa egiten den guztietan enpresak Udalari jakinaraziko dizkio langile berriaren izen-abizenak eta horrek egiaztatutako euskara maila. Enpresak Udalaren aldeko txostena beharko du langile berria lanean hasi aurretik.

Una vez realizada la contratación, en el caso de que la empresa adjudicataria sustituya personal o tenga intención de incorporar a una nueva persona al servicio, quienes se incorporen deberán cumplir los requerimientos lingüísticos recogidos en este texto. Cada vez que se incorpore al servicio una nueva persona, la empresa comunicará al Ayuntamiento el nombre y apellidos de la misma y el nivel de euskera que tiene acreditado. No podrá comenzar a ejercer su trabajo hasta que el Ayuntamiento emita informe favorable.

b) Zerbitzuan erabiliko den hizkuntzari buruz

Enpresa esleipendunak, zerbitzua ematerakoan, Udalak bere hizkuntzazko jarduera arautzeko dituen planen arabera jokatuko du.

b.1) Hizkuntza paisaia

Zerbitzua ematean enpresa esleipendunak eskolak emango diren eremuan jartzen dituen errotulu, seinale, ohar, kartel eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz idatziko dira.

b.2) Zerbitzu jasoleekin erabiliko den hizkuntzari buruz

Hernaniko Udalak onartutako irizpideei jarraituz, ikasleekiko ahozko harremana euskaraz izango da.

Enpresa esleipendunak haurren familiekin harremana izanez gero, familia euskaldunekiko ahozko eta idatzizko harremana euskaraz izango da. Gainerako familiekiko ahozko eta idatzizko harremanean beste hizkuntzaren bat erabili behar izanez gero, lehentasuna izango du euskarak.

b.3) Enpresaren eta Udalaren arteko harreman hizkuntzari buruz

Enpresa esleipendunaren eta Udalaren arteko ahozko —bilerak, kontsultak...— nahiz idatzizko harremanak —fakturak, txostenak...— Udalaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, hau da, euskaraz. Ondorioz, nahitaezkoa izango da enpresa esleipendunak Udalarekin harremanetan aritzeko izendatuko duen pertsona elebiduna izatea. Eta Euskara Zerbitzuak jarraipena egingo dio behin zerbitzua esleituta.

c) Hizkuntza baldintzen jarraipenari eta ez betetzeari buruz

Kontratazioa sustatu duen udal sailaren arduradunak jarraipena egingo du zerbitzu hau emateko eskatu diren hizkuntza baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

b) Lengua a utilizar en el servicio

La empresa adjudicataria procederá a la hora de ofrecer el servicio de acuerdo con la planificación del Ayuntamiento en cuanto a regulación de la actividad lingüística.

b.1) Paisaje lingüístico

Los rótulos, señalización, avisos, carteles y resto de comunicaciones de carácter general que instale la empresa adjudicataria en el recinto donde se impartan las clases, hará en euskera.

b.2) Lengua a utilizar con las personas receptoras del servicio

La atención verbal con alumnado será en euskera de conformidad con las normas lingüísticas del Ayuntamiento.

En el caso que la empresa adjudicataria tuviera relación con las familias del alumnado, la relación verbal y escrita con las familias vascoparlantes será en euskera. Si en la relación verbal y escrita con el resto de familias hay que utilizar otro idioma, tendrá prioridad el euskera.

b.3)Lengua a utilizar en la relación entre el Ayuntamiento y la empresa

La comunicación verbal —reuniones, consultas...— y escrita —facturas, informes, planes, memorias, evaluaciones...— que mantenga la empresa adjudicataria con el Ayuntamiento será de acuerdo al idioma de trabajo del mismo, es decir, en euskera. En consecuencia, será obligatorio que la persona designada por la empresa adjudicataria para relacionarse con el Ayuntamiento sea bilingüe. Y el Servicio de Euskera hará un seguimiento una vez realizada la adjudicación del servicio.

c) Seguimiento e Incumplimiento de los requerimientos lingüísticos

Será responsabilidad del departamento del Ayuntamiento que ha impulsado la contratación hacer el seguimiento para la verificación del cumplimiento de los requerimientos lingüísticos.

Hizkuntza baldintza horiek urratzeak zigor sistema aplikatzea ekar lezake. Sektore Publikoko Legearen 192. artikuluari jarraituz. Behin eta berriz urratzeak, berriz, kontratua bertan behera uztea ekar lezake, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211. artikuluari jarraituz.

El incumplimiento de los requerimientos lingüísticos podrá dar lugar a la aplicación del sistema penal, de conformidad con el artículo 192 de la Ley de Contratos del Sector Público, y su incumplimiento continuado a la resolución del contrato, de conformidad con el artículo 211 del de la Ley de Contratos del Sector Público.

18.3 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ARLOKO EXEKUZIO BALDINTZA BEREZIAK

18.3 CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN EN MATERIA DE IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES

- Proiektua genero-ikuspegiarekin diseinatu eta ebaluatu beharko da. Alegia, proiektua gauzatzen ari den bitartean eta zeharkakotasunez, emakumeen eta gizonen egoera, beharrizan, interes, asmo eta problema espezifikoak barne hartuko dira, batzuen eta besten arteko desberdintasunak, eta bereziki, diskriminazio anizkoitza jasatzen duten emakumeen egoera kontuan harturik.

- El proyecto deberá ser diseñado y evaluado con perspectiva de género. Es decir, durante la ejecución del proyecto y de modo transversalidad, se tendrán en cuenta situaciones, necesidades, intereses, aspiraciones y problemas específicos de mujeres y hombres, teniendo en cuenta las diferencias entre unas y otras y, en particular, la situación de las mujeres que sufren discriminación múltiple.

- Kontratuaren prestazioa amaitzean, enpresa esleipendunak Udalari aurkeztuko dion ebaluazio txostenean, erabiltzaileen edo onuradun izan diren pertsonen datuak sexu-generoaren arabera bereizkitako datuekin-aurkeztu beharko da.

- Al finalizar la prestación del contrato, la empresa adjudicataria presentará al Ayuntamiento un informe de evaluación en el que se incluyan los datos de las personas usuarias o beneficiarias desagregados por sexo-genero.

- Kontratua egikaturiko duten langile guztiek, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eta kulturartekotasun gaien inguruko prestakuntza bat egin beharko dute. Trebakuntza hau Hernaniko Udalaren bidez eskainiko da.

- El personal adscrito a este contrato, deberá realizar una formación en materia de igualdad entre mujeres y hombres e interculturalidad. Esta formación se impartirá a través del Ayuntamiento de Hernani.

- Kontratua gauzatzearen ondorioz sortzen diren agiri, publizitate, irudi edo material guztietan, enpresa edo erakunde esleipen-hartzaileak hizkuntzaren erabilera ez sexista erabili beharko du, emakumeen kontrako bereizkeria edo estereotipo sexistak bultzatzen dituzten irudiak saihestuko dira, eta berdintasunaren aldeko irudiak sustatuko dira, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta rol eta genero-identitate pluraltasuna bultzatuz.

- En toda la documentación, publicidad, imagen o material que se genere con motivo de la ejecución del contrato, la empresa o entidad adjudicataria deberá emplear un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidad de genero.

19. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE.

Enpresa esleipendunaren ardura da kontratuko lanen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, SPKLren 196.artikuluan xedatutakoaren arabera.

19. RESPONSABILIDAD DEL CONTRATISTA POR LOS DAÑOS CAUSADOS A TERCEROS DURANTE LA EJECUCIÓN DEL CONTRATO.

La empresa adjudicataria será responsable de los daños y perjuicios que se causen como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 196 de la LCSP.

20. KONTRATUA ALDATZEA

Behin kontratua sinatuta, herri onurako arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango du kontratua Udalak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 205. artikuluan ezarritako kasuetan eta modua

20. MODIFICACIONES DEL CONTRATO

Una vez perfeccionado el contrato solo se podrán introducir modificaciones por razones de interés público, en los supuestos y con los límites establecidos en el art. 205 de la LCSP.

21. BERME EPEA

Ez da aurreikusi berme epea ezartzea.

21. PLAZO DE GARANTÍA

No se prevé el establecimiento de un plazo de garantía.

22. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

Oso larriak, larriak edo arinak izango dira kontratistak kontratua gauzatzen duen bitartean egiten dituen arau-hausteak.

Oso arau hauste larriak izango dira honako hauek:

- Zerbitzua gaizki edo behar bezala ez ematea agerikoa izatea, ezarritako baldintzak bete gabe eta atzerapen sistematikoz.
- Enpresak edo bere langileek zerbitzuko erabiltzaileengandik edo partikularrengandik edozein lansari edo oparirik jasotzea.
- Kontratatutako zerbitzua, guztia edo neurri batean, beste bati eman, alokatu edo eskualdatzea, aldez aurretik Udalaren baimen espresua izan gabe.
- Laneko, Segurtasun eta Higieneko eta Gizarte Segurantzako obligazioak ez betetzea programara kontratistaren

22. PENALIDADES AL CONTRATISTA POR INCUMPLIMIENTO

Las infracciones que cometa la empresa contratista se calificarán como muy graves, graves o leves:

Tendrán la consideración de infracciones muy graves:

- La prestación manifiestamente defectuosa o irregular del servicio, no cumpliendo las condiciones establecidas y retraso sistemático del mismo.
- Percibir la empresa contratista o sus empleados/as cualquier remuneración o obsequio de personas particulares o usuarias del servicio.
- La cesión, subarriendo o traspaso total o parcial del servicio contratado sin autorización expresa del Ayuntamiento.
- El incumplimiento de las obligaciones de Trabajo, Seguridad e Higiene y Seguridad Social con el personal a cargo del contratista y adscrito al programa.

kontuko eta mendeko atxikitako langileekin.

• Kontratistak uko egitea eta/edo nahi ez izatea hitzarmen kolektibotik eratorritako obligazioak betetzea.

• Erabiltzailea ahoz eta egitez iraintzea edo tratu iraingarri larria ematea.

• Udalaren berariazko baimen espresurik gabe zerbitzuen lagapena, azpierrentamendua edo eskualdatze osoa edo partziala,

• Baldintza Plegu honetan eta Plegu Teknikoan ezarritako obligazioak ez betetzea dakartenak eta bere entitatea kontuan izanik oso larritzat jo daitezkeenak.

• 6 hilabeteko epean ez-betetze larri bat baino gehiago egitea.

Arau hauste larriak izango dira:

• Kontratuaren xede den zerbitzua emateko moduari dagokionez, teknikari arduradunak edo haren ordezkoak emandako aginduak edo plegu honetan ezarritakoak behin eta berriz bete gabe uztea. Bi hilabetean zehar birritan edo urtebetean lau aldiz errepikatzea hartuko da errepikapentzat.

• Kontratistarentzat gasturik sortu gabe zerbitzuaren xehetasunen inguruan aldaketak egiteko Udalak hartutako erabakiak ez betetzea.

• Kontratistari gastu gehiago ekartzen ez dioten programa-aldaketei edo hobekuntzei buruz udalak agindutakoa ez betetzea.

•

• Udalak emandako edo adostutako zerbitzuaren ordutegia/egutegia hiru aldiz ez betetzea.

• La negativa y/o resistencia de la entidad contratista a cumplir con las obligaciones derivadas de la negociación colectiva.

• Las ofensas verbales o físicas o el trato vejatorio grave a la persona usuaria.

• La cesión, subarriendo o traspaso total o parcial de los servicios, sin autorización expresa del Ayuntamiento.

• Todas aquellas que implicando un incumplimiento de las obligaciones establecidas en el presente Pliego de Condiciones y en el Pliego Técnico, por su entidad merezcan la calificación de muy graves.

• Reiteración de más de un incumplimiento grave en el plazo de 6 meses.

Tendrán la consideración de infracciones graves:

• En lo que respecta al modo de prestar el servicio objeto del contrato, incumplimiento reiterado de las órdenes recibidas del personal técnico responsable o de quien lo sustituya, o de las establecidas en este pliego. Se entenderá reiterativo cuando se repita en dos ocasiones en dos meses, o cuatro ocasiones en un año.

• El incumplimiento de acuerdos o decisiones municipales sobre variaciones de detalle en el servicio que no supongan gasto para la contratista.

• Incumplimiento de las órdenes municipales sobre modificaciones o mejoras del programa que no impliquen mayores gastos para el Contratista.

• El incumplimiento por tres veces del horario/calendario del servicio acordado o dado por el Ayuntamiento.

• Antzemandako akatsak zuzentzeko udalak emandako aginduak justifikaziorik gabe bete gabe uztea.	• La desobediencia inexcusable a las órdenes que el Ayuntamiento dé para corregir deficiencias que puedan observarse.
• Atzerapen ez-sistematikoa lanak egiterakoan.	• El retraso no sistemático en la prestación de los trabajos.
• Zerbitzua emateko lantalde betea edo beharrezko bitartekoak ez edukitzea.	• No tener completa la plantilla o los medios necesarios para la prestación del servicio.
• Erabiltzaileari tratu iraingarria ematea, arau-hauste oso larrien berezko ezaugarriak dituena ez bada.	• El trato vejatorio a la persona usuaria, salvo que revistiese características propias de las infracciones muy graves.
• Koordinazioaren eta zerbitzu gestioaren urritasunak, ondorio larriak sor baditzake.	• Las deficiencias en la coordinación y gestión del servicio que puedan derivar en consecuencias graves.
• Zerbitzuak faltsuak izatea edo faltsutzea.	• La falsedad o falsificación de los servicios.
• Behar bezala isilik ez gordetzea emandako zerbitzuagatik jakiten diren gaiak, erabiltzailea kaltetzen dutenean edo norberaren probetxurako badira.	• El no guardar el debido sigilo respecto de los asuntos que se conozcan en razón del servicio prestado y que perjudique a la persona usuaria o se utilice en provecho propio.
• Baldintza Plegu honetan eta Plegu Teknikoan ezarritako obligazioak bete ez, baina oso larrien artean sartzen ez badira eta ezaugarriengatik arinen artean ere sar ez daitezkeenean.	• Todas aquellas que implicando un incumplimiento de las obligaciones establecidas para la entidad contratista en el presente Pliego de Condiciones y en el Pliego Téccnico, no merezcan la calificación de muy graves y que por su naturaleza no deban ser comprendidas como leves.
• Bi ez-betetze arin egitea 6 hilabeteko epean.	• Comisión de dos faltas leves en un plazo de 6 meses.

<u>Arau hauste arinak izango dira:</u>	Tendrán la consideración de <u>infracciones leves</u>:
• Udalari jakinarazi gabe hauetako edozein zerbitzu etetea, edozein dela arrazoia, eta betiere ez denean gertatzen 4 aldiz baino gehiago urte natural bakoitzean.	• La interrupción no comunicada al Ayuntamiento en cualquiera de los servicios, por cualquier causa y siempre que no se produzca más de 4 veces en cada año natural.

- Erabiltzaileekin adeitsu ez izatea.

- Zerbitzu prestakuntzan egon diren gertakizunak Udalari ez jakinaraztea ezarritako epe barruan.

- Pertsonalaren garbiketa falta, zerbitzua burutzen duen bitartean.

- Plegu honetan edo baldintza teknikoen pleguan jasotako beste edozein puntu ez betetzea; betiere ez-betetze larri edo oso larritzat sailkatu ez bada.

Honako zehapen hauek jarri ahal izango zaizkio kontratistari:

- Ez-betetze arinagatik: zigor ekonomikoa jarriko zaio enpresa esleipendunari. Zigor hori hilabeteko fakturazioatik kenduko da. Egoera zuzentzen ez den bitartean zigor ekonomikoa hurrengo hilabeteetako fakturazioan ere aplikatuko da.

  Ez betetze arinagatik honako zehapen hau jarri ahal izango da: 218,5 €

- Ez-betetze larriagatik: zigor ekonomikoa jarriko zaio enpresa esleipendunari. Zigor hori hilabeteko fakturazioatik kenduko da. Egoera zuzentzen ez den bitartean zigor ekonomikoa hurrengo hilabeteetako fakturazioan ere aplikatuko da.

  Ez betetze larriagatik honako zehapen hau jarri ahal izango da: 655,5 €

- Ez-betetze oso larriagatik: zigor ekonomikoa jarriko zaio enpresa esleipendunari. Zigor hori hilabeteko fakturaziotik kenduko da. Egoera zuzentzen ez den bitartean zigor ekonomikoa hurrengo hilabeteetako fakturazioan ere aplikatuko da.

- La descortesía con las personas usuarias.

- No comunicar al Ayuntamiento, dentro del plazo establecido, las contingencias acaecidas en la prestación del servicio.

- Falta de aseo del personal durante la prestación del servicio.

- Cualquier otro incumplimiento de lo establecido en este pliego o en el de condiciones técnicas, que no haya sido calificado como grave o muy grave.

Las penalidades que se podrán imponer a la empresa contratista serán las siguientes:

- Los incumplimientos leves se sancionarán con penalización económica a la empresa adjudicataria. Esta penalización de deducirá de la facturación mensual. Mientras no se corrija la situación, la penalización económica se aplicará también en la facturación de los meses siguientes.

  Por incumplimiento leve se podrá imponer la siguiente sanción: 218,5 €

- Los incumplimientos graves se sancionarán con penalización económica a la empresa adjudicataria. Esta penalización de deducirá de la facturación mensual. Mientras no se corrija la situación, la penalización económica se aplicará también en la facturación de los meses siguientes.

  Por incumplimiento grave se podrá imponer la siguiente sanción: 655,5 €

- Los incumplimientos muy graves se sancionarán con penalización económica a la empresa adjudicataria. Esta penalización de deducirá de la facturación mensual. Mientras no se corrija la situación, la penalización económica se aplicará también en la facturación de los meses siguientes.

Ez betetze oso larriagatik honako zehapen hau jarri ahal izango da: 1.092 €	Por incumplimiento muy grave se podrá imponer la siguiente sanción: 1.092 €
Hala eta guztiz ere, oso arau hauste larriak direnean, Udalak erabaki ahal izango du zehapenak jarriko dituen, klausula honetan aurreikusitakoaren arabera, edo kontratua suntsitzeko dagokion espedientea hasiko duen.	No obstante, en caso de infracciones muy graves el Ayuntamiento podrá optar entre la imposición de penalidades, según lo previsto en esta cláusula, o el inicio del correspondiente expediente para la resolución del contrato.
Klausula honetan aurreikusi ez diren gaietarako SPKLren 192tik 195 artikuluan jasotakoak aplikatuko dira.	Para todo lo no previsto en la presente cláusula será de aplicación lo establecido en los arts. 192 a 195 de la LCSP.
23. AZPIKONTRATAZIOA ETA LAGAPENA	**23. SUBCONTRATACIÓN Y CESIÓN**
Udalak berariaz baimendu ezean, esleipendunak ezingo dizkio kontratuaren eskubideak eta betebeharrak beste pertsona edo erakunderen bati laga edo eskualdatu.	La entidad adjudicataria no podrá sin previa autorización expresa del Ayuntamiento, ceder ni traspasar los derechos y obligaciones derivadas del contrato, a otra persona o entidad.
Halaber, aurretik Udalak espresuki baimendu ezean, esleipendunak ezingo dio lanen zati bat hirugarren bati azpikontratatu.	La entidad adjudicataria tampoco podrá subcontratar con terceros la realización parcial de la prestación, salvo que el Ayuntamiento lo autorice expresamente.
24. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK	**24. CAUSAS DE RESOLUCIÓN DEL CONTRATO**
Kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira SPKLren 211. artikuluan aurreikusitakoak eta Lege bereko 313.artikuluan bereziki zerbitzu kontratuetarako jasotakoak.	Serán causas de resolución del contrato las previstas en el art. 211 de la LCSP, así como las recogidas en el art. 313 de la misma para los contratos de servicios en particular.
Era berean, kontratua suntsitzeko arrazoi izango da pleguetako 17.1 atalen 18. klausulan ezarritako kontratua gauzatzeko baldintza bereziren bat ez betetzea.	Asimismo, será causa de resolución del contrato el incumplimiento de las condiciones especiales de ejecución recogidas en las cláusulas 17.1 y 18 del presente pliego.
Nolanahi ere, kontratistak Udalari sortutako kalteak ordaindu beharko dizkio.	En todo caso, la empresa contratista deberá abonar al Ayuntamiento los daños y perjuicios que efectivamente le haya irrogado.
25. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK	**25. PRERROGATIVAS DE LA ADMINISTRACIÓN**
Kontratu administratiboak interpretatzeko eta kontratu horiek betetzean sortzen diren zalantzak erabakitzeko prerrogatiba du kontratazio-organoak. Era berean, interes publikoko arrazoiengatik, kontratuak aldatu, haiek suntsitzea erabaki eta suntsitze horren	El órgano de contratación ostenta la prerrogativa de interpretar los contratos administrativos y resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento. Igualmente, podrá modificar por razones de interés público, los contratos y acordar su resolución y determinar los efectos

ondorioak zehaztu ahal izango ditu, SPKLan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuan zehaztutako mugak, baldintzak eta ondorioak kontuan harturik.

de ésta, dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos señalados en la LCSP y por el Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento general de la ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

IV. IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

26. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, bereziki, Azaroaren 8ko, 9/2017 Legeak Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, eta, halaber, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsiak, ezarritako arauak bete beharko dira, baita herri-administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

27. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honek berarekin izaera pertsonaleko datuetan sartzea dakarrenean, enpresa kontratistak SPKLaren Hogeita Bosgarren Xedapen Gehigarrian finkatutako betebeharrak bete beharko ditu, Datu Pertsonalen Babesari buruzko 2018/1725 Europar Erregelamenduari eta Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Legeari dagokienez.

IV.- NATURALEZA, RÉGIMEN JURÍDICO Y JURISDICCIÓN COMPETENTE

26. NATURALEZA Y RÉGIMEN JURÍDICO

El contrato que en base a este pliego se realice, tendrá carácter administrativo y en todo lo no previsto en él se estará a lo dispuesto, específicamente en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, así como en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, y demás normas que, en su caso, sean de aplicación a la contratación de las Administraciones Públicas.

En caso de contradicción entre el presente Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el resto de la documentación técnica unida al expediente, prevalecerá lo dispuesto en este Pliego.

27. PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL.

En el caso de que la presente contratación implique el acceso a datos de carácter personal, el contratista deberá cumplir las obligaciones derivadas de la Disposición Adicional Vigésima Quinta de la LCSP, en relación con el Reglamento Europeo 2018/1725 relativo al a protección y tratamiento de datos personales y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales, y garantía de derechos digitales.

28. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren mende egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek hala nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorriz.

28. JURISDICCIÓN COMPETENTE

Las cuestiones litigiosas que se deriven del contrato se entenderán sometidas a la jurisdicción contencioso-administrativa, no obstante lo cual, las partes pueden acordar el sometimiento de sus litigios a arbitraje, conforme a lo establecido en la legislación vigente.

Hernanin 2024ko maiatzan/ En Hernani a mayo de 2024